



ANOETAKO  
UDALA

### 03/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

#### 2023KO APIRILAREN 19AN EGINDAKO PREMIAZKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA

##### **BERTARATUTAKOAK:**

##### **ALKATEA**

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

##### **ZINEGOTZIAK:**

Esther Iztueta Zelaia (EH Bildu taldea)  
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)  
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)  
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)  
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)  
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)  
Rafael Uribarren Axpe (EAJ taldea)  
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)  
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

##### **IDAZKARIA:**

Erika Sagarzazu Camino

##### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Saioa Tolosa Zubelzu (EH Bildu taldea)

Anoetako Udaletxean, 2023ko apirilaren 19an, arratsaldeko 18:05etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko premiazko ezohiko osoko bilkura antolatuta, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

#### **1.- EZOHICO BILKURARAKO DEIA PREMIAZ EGIN IZANARI BURUZKO ERABAKIA.**

Alkateak bilkurarako deialdia premiaz egiteko arrazoiak azaldu ditu. Alde batetik, azaldu du “Modestoenea” eraikina eta lursailak erosteko epea aste honetan bukatzen zela; izan ere, horien titularrek, prozeduraren atzerapena ikusita, aste hau jarri zuten epemuga gisa. Bestetik, bilkura bera erabiltzen da, bide batez, Anoetako HAPOko A5 “ZELAIETA” eremuko 5.1. Egikaritze Unitateko Plan Bereziaren izapideekin jarraitzeko, kontuan hartuta maiatzaren 28an tokiko hauteskundeak izango direla eta, beraz, legegintzaldia laster amaitzen dela.

Behin Alkateak ezohiko bilkurarako deialdia premiaz egin izanari buruzko arrazoiak azaltzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

#### **EBAZPENA**

**BAKARRA.** Ezohiko osoko bilkura honen deialdiaren premiazko izaera berrestea.

Behin Udalbatzak ezohiko osoko bilkuraren premiazko izaera berretsita, Alkatearen aginduz bilerari hasiera eman zaio, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

## EBAZPENAK

### 2.- ANOETAKO HAPOko A5 “ZELAIETA” EREMUKO 5.1. EGIKARITZE UNITATEKO PLAN BEREZIA BEHIN BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.

2022ko martxoaren 22an, Lurralde Batzordeak honako irizpen hau eman zuen:

“... ”

*Anoetako HAPOko A5 “ZELAIETA” eremuko 5.1. Egikaritze Unitateko Plan Bereziaren Hasierako Onarpena dekretu bidez eman zen 2021eko apirilaren 13an, udal aparejadorearen 2021eko otsailaren 2an egindako txostenean aipatzen dena kontuan harturik. Plan Bereziaren erredakzioaren arduradun diren Javier Yeregi, Luis Pedro Blanco eta Izaskun Solabarrieta arkitektoek, 2022ko martxoaren 22an testu bateragarri bat entregatu dute Anoetako udalean, sinatuta, tramitearekin jarraitu ahal izateko.*

*Plan Bereziaren xedea Anoetako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko A5 «Zelaieta» eremuko banakako fitxaren 5.1. Egikaritze Unitatearen antolamendu xehatua doitzea da. **Hauek dira doikuntzak:***

*- Aipatutako fitxak eremu honen antolamendu xehatuan honako hau finkatzen du 4.1 puntuan: **ORDENATUTAKO PARTZELEN ERAIKIGARRITASUNA:** gutxi gorabehera (ez gehienez) 12 etxebizitza bloke bakoitzeko, guztira 1.590 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin. Gehieneko azalera hori eta altuerak kontuan izanda, bloke bakoitzeko 16 etxebizitza banatzea proposatzen da ( $1.590 \text{ m}^2 / 16 = 99,37 \text{ m}^2$ -ko gehiegizko azalera), 12 etxebizitza banatuz gero, handiegiak izango direla arrazoitzen du Anoetako bezalako udalerrri batentzat.*

*- Plan Orokorrak sotoko bi solairu eraikitze baimena ematen du, guztira 1.404 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin, 702 m<sup>2</sup> bloke bakoitzeko. Banakako fitxak etxebizitza bakoitzeko gutxienez aparkaleku plaza 1 finkatzen du. Hala ere, Plan Orokorrean eraikinetarako aurreikusitako 13 metroko sakonera eskasak ez du ahalbidetzen eraikin bakoitzean 16 plaza banatzea, solairu bakoitzean elementu komunek behar duten eremuak azalera asko kentzen baitu (errodadura eremua, eskailera, igogailu eremua eta bi solairuen arteko komunikazio arrapala). Galtzen den azalera honekin, nekez banatuko lirateke 8/10 plaza baino gehiago bi solairuen artean, eta, beraz, ezin da bete Plan Orokorreko Fitxak eskatzen duena, etxebizitza bakoitzeko plaza bat edukitzea.*

*Horregatik, irtenbiderik onena sotoko solairuan okupazio azalera handitzea eta bloke bakoitzean solairu bakarra aurreikustea da.*

*Sotoko solairuak handitzeko proposamen horrek lurzoru okupazio handiagoa eskatzen du. Plan Bereziak honi erantzuna ematen dio, Plan Orokorrakbloke bakoitzerako finkatzen duen azalera pribatu osoa okupatuz, ez bakarrik eraikuntzak altueran hartzen duena, gainera, 1,15 metroko zabalera bat erantsiz ekialdeko aurrealde osoan, bi blokeetan. Horrez gain, A blokean, hegoalderago, beste bi zerrenda gehitzen zaizkio, bat, 0,50 metrokoa erdiko eskailerarantz, eta bestea, 0,80 metrokoa kontrako aldean.*

*Egokitzapen horiekin, unitate osoan (bi blokeak), satora bideratutako azalera 978,00 m<sup>2</sup>-koa izango da gutxi gorabehera, eta solairu bakar batean garatuko da. Azalera hori Plan Orokorreko banakako fitxan finkatutako gehieneko azalera baino txikiagoa da, 1.404 m<sup>2</sup>-koa, eta, beraz, sotoko solairuetako eraikigarritasuna ez da handituko Plan Bereziak proposatzen duen irtenbidearekin.*

*Oinplanoko okupazio berriari esker, guztira 32 aparkaleku plaza banatu daitezke bi blokeetako sotoen artean, eta, beraz, Plan Orokorren fitxak ezartzen duen estandarra betetzen da. Hori lortzea zaila da, adierazi den bezala, fitxan bertan finkatutako okupazioarekin.*

*- Dokumentazioko luzetarako sekzioetan ikus daitekeenez, San Juan kaletik, aurreikusitako bi eraikin berrien atarietarako sarbidea konpontzeko, elbarriak sartu ahal izateko arrapala batzuk egin behar dira. Espaloian 3,00 metroko zabalera ez murrizteko, bi blokeak ekialderantz metro bat mugituko dira. Desplazamendu horrek Plan Orokorren Fitxan aurreikusitako urbanizazioaren diseinua aldatzera behartzen du aurreikusitako bi bloke berrien ekialdean (atzealdean).*

*- Lehen adierazi den bezala, Unitatearen azalera pribatua, Plan Bereziaren arabera, 978 m<sup>2</sup>-koa da (garaje solairuarekin bat dator). Azalera pribatu horri atarietara sartzeko bi arrapala eta eskailerena gehitu beharko zaio, 29,32 m<sup>2</sup>-koa guztira. Horrenbestez, bi blokeei dagokien azalera pribatua 1.007,22 m<sup>2</sup>-koa izango da guztira. Planoaren gainean egindako neurketaren arabera, Plan Orokorren proposamenaren arabera, bi blokeen azalera pribatua 947,74 m<sup>2</sup>-koa da, eta, beraz, Plan Bereziaren 59,48 m<sup>2</sup> lurzoru pribatu gehiago okupatzen da.*

*- Plan Orokorrak San Juan kaleko 8. zenbakiko eraikina (Buztiñaga etxea) udal mailan oinarritzko babesarekin katalogatzen du, eta lehen solairuko terrazarekin komunikatzeko eskailera eraistea proposatzen du. Eskailera horretatik, goiko solairuetako etxebizitzaren atarira sartzeko da, eta ez du ordezko irtenbiderik ematen. Gainera, eraikinaren aurrealdean, 6F eta 6G eraikinen aurrealdetik datorren espaloitari jarraipena ematea proposatzen du, terrazaraino zabaltzen den zabalera batekin, eta, ondorioz, eraikinaren egungo ataurrea murrizten du.*

*Horma batek mugatzen duen jabetza pribatuko ataurre horren bidez, kalearen malda errespetatzen ez duen eta nabarmen horizontala denak, eraikinaren beheko solairura iristea ahalbidetzen du. Bertan, gaur egun, merkataritza-lokal bat eta etxebizitza bat daude, hiri katastroko informazioaren arabera. Plan Orokorrak proposatzen duen espaloiarekin, sarbide hori oso mugatua izango litzateke.*

*Hori dela eta, Plan Bereziak proposatzen duen irtenbidea Plan Orokorrean aurreikusitakoaren eta eraikinaren aurreko espaloirik gabeko egungo egoeraren bitarteko konponbidetzat har daiteke. Espaloia 2,00 metroko gutxienezko zabaleraarekin*

luzatzea proposatzen da, eraikinaren hegoaldeko ertzean (estuenean), eta 3,20 metrora ino zabaltzea iparraldeko ertzean. Horrela, espaloi publikoaren jarraitutasuna ebatzen da, eta aurrealde pribatu bat mantentzea ahalbidetzen da, 4,50 metrokoa gutxi gorabehera, espaloi berriaren barruko ertzetik eraikinaren beheko solairuko fatxadaraino. Era berean, terrazara sartzeko egungo eskaileraren ordez beste eskailera bat jartzea proposatzen da, Buztiñaga etxeari erantsitako lursail pribatuaren barruan. Adierazitako guztia dokumentuaren planoetan irudikatuta geratzen da. Hiri Antolamenduko Plan Berezi honek proposatzen duen konponbidearekin, 28,92 m<sup>2</sup>-tan murrizten da lurzoru publikoa San Juan kaleko 8. eraikinaren aurrealde horretan, Plan Orokorrean aurreikusitakoari dagokionez.

Plan Bereziak proposatzen dituen bi bloke berriei dagokienez, unitatean lurzoru pribatuaren guztizko azalera 1.007,22 m<sup>2</sup>-koa da, eta Buztiñaga etxearen aurrealdekoa gehituta, guztira 1.036,14 m<sup>2</sup>-koa da. Plan Orokorrearen Fitxan aurreikusitakoa, planoan egindako neurketaren arabera, 947,74 m<sup>2</sup>-koa denez, Plan Orokorrean aurreikusitakoa baino 88,40 m<sup>2</sup> handiagoa izango da. Hori konpentsatzeko, Planaren sustatzaileek doan utziko diote Udalari José María Uzcudun jaunari (230 m<sup>2</sup>) eta Carlos Descalzo jaunari (270 m<sup>2</sup>, nahiz eta Arean sartutakoak 130 m<sup>2</sup> diren) eskritura publikoan eskuratutako azalera osoa, guztira 500 m<sup>2</sup> dira. Eremuko Espazio Indibidualizatuen Fitxaren arabera, Espazio Libreen Sistema Orokorrearen azalera 350 m<sup>2</sup>-koa da. Kontuan hartuta Espazio Libreen Sistema Orokorrerako uzten direla 500 m<sup>2</sup> horiek, kontzeptu horrengatik utzitako azalera osoa 150 m<sup>2</sup> gehiago dira, eta, ondorioz, eremuko lurzoru publikoaren gehikuntza 61,60 m<sup>2</sup>-koa izango da (150,00 – 88,40).

Azkenik, aipatu beharra dago Plan Berezi honetan jasotzen diren aktuzioak baldintzatuta egongo direla Udalak, etorkizun hurbilean, Toloretxe eraikinaren eta bere partzela zatiaren gainean hartu beharreko erabakiekin.

#### **BATZORDEAREN AURREAN JARTZEN DEN PROPOSAMENA:**

**LEHENENGOA.** Anoetako HAPOko A5 “ZELAIETA” eremuko 5.1. Egikaritze Unitateko Plan Bereziaren behin behineko onarpena hasiera batean onartzea.

**BIGARRENA.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Sailari akordio honen berri ematea, horren gainean dagokion behin betiko onarpena egin dezan, hala badagokio.

...”.

2022ko martxoaren 25ean, aitzitik, Ray Mendiburu Abad arkitektoak, espedientea aztertuta, ondorengo kontrako txostena egin zuen:

“...

2022ko martxoaren 22an, aldatutako dokumentua aurkeztu zen, goian adierazitako baldintzekin, honako hau izan ezik:

- Ez da sartu bide-azpiegiturei buruzko aldeko txostena, ez baita jaso Udalean.

- Ez dira HAPBn sartu Alkiza errekarerekin muga egiten duen espazio librearen ingurumena eta paisaia leheneratzeko jarduketak (URAREN txostenaren 4. atalean deskribatzen dira):

1. Txabolak eraistea.
2. Landareztatzea.
3. Naturalizazioa.
4. Paisaia hobetzea.

Gainera, errekatik gertuen dagoen zerrendarako hartutako irtenbideak errekastoa ekologikoki leheneratzea eta landaredi naturaleko zerrenda bat ezartzea ahalbidetu beharko du.

Horrenbestez, eta arestian azaldutakoa kontuan hartuta, behean sinatzen duen teknikariak aurkeztutako dokumentazioaren aurkako txostena egin du, arestian azaldutako arrazoiak direla-eta.

...”.

Hortaz, aurreko guztia kontutan hartuta, eta ikusita HAPOko A5 “ZELAIETA” eremuko 5.1. Egikaritze Unitateko Plan Bereziaren espedientea ez zegoela guztiz osatuta behin behinean onartzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzeko, Udaltzarak puntu hau orduan ez bozkatzeko akordioa hartu zuen.

2022ko martxoaren 25eko udal-txosten teknikoan eskatutako betekizunei dagokienez, honako dokumentu hauek jaso ziren Udalean:

- 2022ko apirilaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko txostena.

- 2022ko apirilaren 1ean, Arridón S.L. enpresak aurkeztutako Plan Bereziaren dokumentazio osagarria, eskatutako ingurumen-jarduerak Plan Berezian sartzea justifikatzen zuena.

Horrenbestez, eta arestian azaldutakoaren aurrean, Ray Mendiburu Abad arkitektoak, 2022ko apirilaren 25ean, aldeko txostena egin zuen, Udaltzari proposatuz espedientearekin jarraitzeko.

Horiek horrela, 2022ko apirilaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Udaltzarak honakoa onartu zuen: Anoetako HAPOko A5 “ZELAIETA” eremuko 5.1. Egikaritze Unitateko Plan Bereziaren behin behinean onartzea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Sailari akordio horren berri ematea, horren gainean dagokion behin betiko onarpena egin zezan, hala bazegokion.

2022ko ekainaren 16an, Lurralde Antolaketa Saileko zuzendaritzak “A.5 Zelaieta” eremuko egikaritze-unitatearen Hiri Antolamenduko Plan Berezia espedientea ebazteko epea etetea ebatzi zuen, prozedura administratiboa ez baitzegoen oso-osorik beteta.

Behin Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Departamentuak adierazitakoak beteta, berriro ere proposatzen zaio Udaltzara honi



Anoetako HAPOko A5 “ZELAIETA” eremuko 5.1. Egikaritze Unitateko Plan Berezia behin behinean onestea.

Rafael Uribarren zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du ea hartu beharreko akordio honek babesten duen lurralde-unitate horretan “Modestoenea” eraikinaren mantentzea eta, aldi berean, ahalbidetzen duen etorkizunean bertan egin nahi diren aldaketak gauzatzea; alegia, beste era batera esanda, ea akordio honek Udala konprometitzen duen etorkizunean nahi ez diren aldaketak egitera (adibidez, Modestoeneako eraikina eraitsi behar izatea) edo ea Udalari galaraziko dion eraikinean eta lursailetan nahi dituen aldaketak egitea, eman nahi zaion erabilgarritasunaren arabera. Alkateak erantzun dio esanez akordio honek ez duela ez babesten eraikinaren mantentzea ez galarazten etorkizunean egin nahiko diren aldaketak; etorkizunean egin beharrekoak Plan Orokorren aldaketen bidez egin beharko direla eta bertan hartutako erabakiak bai izango direla lotesleak.

Jarraian, Udalbatzak puntu hau bozkatu du eta, aho batez, honakoa onartu du:

#### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Anoetako HAPOko A5 “ZELAIETA” eremuko 5.1. egikaritze-unitateko Plan Berezia behin behinean onartzea.

**BIGARRENA.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Sailari akordio honen berri ematea, horren gainean dagokion behin betiko onarpena egin dezan, hala badagokio.

### **3.- “MODESTOENEA” ERAIKINA ETA LURSAILAK, 3092661 A KATASTRO-FINKAN (7579127 KATASTRO-ERREFERENTZIA) KOKATUTAKOAK, EROSTEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak hitza hartu du eta 2023KAPI0002 espedientearen (“MODESTOENEA” ERAIKINA ETA LURSAILAK EROSTEA, ANOETAKO 3092661 A KATASTRO-FINAK – 7579127 katastro-erreferentzia – KOKATUTAKOA) aurrekariak azaldu ditu.

Erosi nahi den ondasunaren datuak hauek dira:

Erreferentzia katastrala Referencia catastral	7579127	Finka Finca	3092661 A
Udalerria Localización	Anoeta	Kalea/Bidea Calle/Camino	San Juan
Zona	21	Ataria Portal	010
Lurraren balioa Valor del suelo	290.992,71 €	Balio katastrala Valor catastral	380.780,08 €





Ondasun higiezin honen egokitasun berezia ez datza eman nahi zaion helburuan, baizik eta herriarentzat duen balio historikoan eta kulturean. Horregatik, Udal honen interesa da hura herriaren intereserako eta aprobetxamendurako gordetzea. Emango zaion erabilerari dagokionez, korporazio honek uste du egokiena dela erabaki hori herriak berak hartzea, dagokion partaidetza-prozesuaren bidez.

Prozesu honek bi urte baino gehiago daramatza Udal honen eskuartean. Hala, 2020ko abuztuaren 10ean, Ray Mendiburu Abad arkitektoak, Anoetako Udalaren enkarguz, Anoetako 3092661 A katastro-finkan (7579127 katastro-erreferentzia) dauden "Modestoenea" eraikinaren eta lursailen balorazio-txostena egin zuen.

2022ko Aurrekontu Orokorrean 1.0000.622.152.20.01 "Modestoenea eremua erostea" aurrekontu-partida sortu zen, 35.000 euroko kredituarekin.

Bestalde, 2022ko urriaren 25ean, udal aparejadoreak, Maddi Amonarriz Zubeldiak, "Modestoenea" eraikinaren eta lursailen beste balorazio txosten bat egin zuen, aurrekoaren zenbatekoak egungo merkatuko prezioetara egokituz.

Idazkari Kontu-hartzaile honek txostena egin zuen 2022ko urriaren 26an, 2022-KALD-000009-00 Kreditu gehigarrien bidezko kreditu-aldaketa egiteko espedientearen gainean, hainbat eragozpen jasota.

Anoetako Udaleko Udal Batzarrak, 2022ko urriaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, kreditu gehigarrien bidezko 2022-KALD-000009-00 kreditu-aldaketa espedientea onartu zuen, goiburuan adierazitako higiezina erosteko, 1.0000.622.152.20.01 aurrekontu-partida 450.000 euroko kreditu gehigarriekin ugarituz. Guztira, aurrekontu-partida 485.000 euroko kredituarekin geratu zen 2022ko ekitaldian. Erosketarako prezioa 450.000 eurokoa izango litzateke, ondasunaren titularrekin negoziatutakoa, eta gainerako 35.000 euroak eraikinean eta lursailean egin beharreko gainerako gastuentzat.

2023ko martxoaren 28an, udal arkitekto teknikoak txostena egin zuen, Idazkari Kontu-hartzaileak eskatuta, Modestoenea eraikina eta bere lurren balorazio ekonomikoaren inguruan dauden bi txosten teknikoen arteko ezberdintasuna justifikatzeko.

2023ko apirilaren 3an Alkatetzak probidentzia egin zuen, besteak beste, "Modestoenea" izeneko ondasun higiezina eskuratzeko kontratazioa esleitzeko espediente administratiboari hasiera ematea, ondasunaren egokitasun bereziagatik zuzeneko esleipenaren modalitatean, aginduz.

2023ko apirilaren 4an kontratazioa arautuko duten Baldintza Administratibo eta Tekniko Berezien Agiriak egin ziren.

2023ko apirilaren 5ean Idazkari Kontu-hartzaileak espedientearen gaineko eragozpenezko txostena egin zuen.

2023ko apirilaren 5ean Alkatetzak ebazpena eman zuen, ulerturik goian aipatutako ondasuna zuzenean eskuratzeko kontratazio-espedientea onartzeko eskumena duela, Udalbatzak proiektu horri buruz duen adostasuna kontuan hartuta, eta behin betiko esleipena hark egiteari kalterik egin gabe. Ebazpen horretan Anoetan, 3092661 A katastro-finkan (7579127 katastro-erreferentzia) dauden lursailak eta Modestoenea eraikina zuzenean erosteko administrazio-espedientea onartzen zuen, horren



ANOETAKO  
UDALA

lizitaziorako deialdia eginez, baita dagokion gastua eta Baldintza Administratibo zein Tekniko Berezien Agiriak onartu ere, ondasunaren jabeari prozeduran parte hartzera gonbidatzea eta kontratatzailearen profilean kontratazio-espeditentea argitaratzea aginduz.

2023ko apirilaren 5ean kontratatzailearen profilean argitaratu zen kontratazio-espeditentea eta ondasunaren jabeai prozeduran parte hartzeko gonbidapena egin zitzaien.

2023ko apirilaren 5ean Alkateak 2023-KALD-000001-00 aurrekontuko kredituak aldatzeko espeditentea onartu zuen, kreditu txertaketen modalitatekoa, bestek beste, 1.0000.622.152.20.01 2022 “Modestonea eremua erostea” aurrekontu-partidako kredituak, 450.000 eurokoak, 2023ko aurrekontura txertatuz.

2023ko apirilaren 12an udal arkitekto teknikoak txostena egin zuen, TOLARETXE (Modestoenea) eraikina eta haren lursailen lur zatiketa, salerosketarako, egin ahal izateko, higiezinaren jabeek eskatuta (eskakizuna 2023ko apirilaren 17an idatziz formalizatu zen.

2023ko apirilaren 17an ondasunaren jabeen parte-hartze agiriak jaso ziren udal erregistroan, 450.000 euroko eskaintzarekin bat eginez.

2023ko apirilaren 17an Alkateak ebazpena eman zuen, higiezinaren jabeek eskaturiko zatiketa onartuz, salerosketa egin ahal izateko.

2023ko apirilaren 18an Idazkari Kontu-hartzaileak espeditentearen gaineko eragozpeneko txostena egin zuen.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 15., 19. eta 116. artikuluetan xedatutakoa oinarri hartuta, eta lege hori garatzeko, 33/2003 Legearen erregelamendu orokorra onartzen duen abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretuaren 22. artikulutik 32. artikulura, eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 10. eta 11. artikuluetan xedatutakoa.

Ikusita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarriak organo honi ematen dion eskumena, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Honako ondasun hau eskuratzea, eskaintzan agertzen diren baldintzetan eta Baldintza Administratibo Berezia Agirian zehazten diren baldintzetan, honako esleipendun hauei, prezio honetan:

Higiezinaren deskribapena:

Erreferentzia katastrala Referencia catastral	7579127	Finka Finca	3092661 A
Udalerría Localización	Anoeta	Kalea/Bidea Calle/Camino	San Juan



Zona	21	Ataria Portal	010
Lurraren balioa Valor del suelo	290.992,71 €	Balio katastrala Valor catastral	380.780,08 €

Titularrak / esleipendunak:

Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Jesús María Berasategui Ormazabal 15870922W	Titularitatearen % % Titularidad	20
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Ramón Berasategui Ormazabal 72509398N	Titularitatearen % % Titularidad	20
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Arantxa Otaegi Berasategi 72442303P	Titularitatearen % % Titularidad	20
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	María Josefa Otaño Otaegui 72509672X	Titularitatearen % % Titularidad	16,67
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	María Iciar Berasategui Bermejo 44135055X	Titularitatearen % % Titularidad	8,75
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Mikel Berasategui Otaño 44149886Y	Titularitatearen % % Titularidad	1,665
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Aitziber Berasategui Otaño 44149884G	Titularitatearen % % Titularidad	1,665
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	María Lourdes Berasategui Bermejo 44135056B	Titularitatearen % % Titularidad	8,75
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	María Luisa Bermejo Andueza 72416913X	Titularitatearen % % Titularidad	2,5

Prezioa: Laurehun eta berrogeita hamar mila euro (450.000,00 €). Desglosea:

Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Jesús María Berasategui Ormazabal 15870922W	Zenbatekoa (€) Importe (€)	90.000,00
Izen-abizenak Nombre y apellidos	Ramón Berasategui Ormazabal 72509398N	Zenbatekoa Importe	90.000,00

NAN / DNI			
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Arantxa Otaegi Berasategi 72442303P	Zenbatekoa Importe	90.000,00
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	María Josefa Otaño Otaegui 72509672X	Zenbatekoa Importe	75.015,00
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	María Iciar Berasategui Bermejo 44135055X	Zenbatekoa Importe	39.375,00
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Mikel Berasategui Otaño 44149886Y	Zenbatekoa Importe	7.492,50
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	Aitziber Berasategui Otaño 44149884G	Zenbatekoa Importe	7.492,50
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	María Lourdes Berasategui Bermejo 44135056B	Zenbatekoa Importe	39.375,00
Izen-abizenak Nombre y apellidos NAN / DNI	María Luisa Bermejo Andueza 72416913X	Zenbatekoa Importe	11.250,00
<b>GUZTIRA</b> <b>TOTAL</b>			450.000,00 €

**BIGARRENA.** Dagokion gastua xedatzea, 2023ko apirilaren 53eko Alkatetzaren Dekretuan ezarritakoaren arabera.

1.0000.622.152.20.01 (2023), 450.000 €

**HIRUGARRENA.** Alkateari ahalordea ematea salerosketa-kontratua sinatzeko eta hura gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako izapideak egiteko, Udalbatza honen izenean eta ordezkapenean.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalordea ematea hitzarmena eta horren eranskinak sinatzeko.

**BOSGARRENA.** Esleipen-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, 15 eguneko epean.

**SEIGARRENA.** Ondasun higiezinaren titularrei, kontratuaren esleipendunei, ebazpen hau jakinaraztea eta kontratua sinatzeko zitazioa egitea.

**ZAZPIGARRENA.** Kontratuaren formalizazioari buruzko iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, gehienez ere hamabost eguneko epean, kontratua burutu



ondoren, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen III. eranskinean jasotako edukiarekin.

**ZORTZIGARRENA.** Erosketa formalizatu ondoren, Ondasunen Udal Inbentarioan eguneratzea.

**BEDERATZIGARRENA.** Beharrezko dokumentazioa Jabetza Erregistrora bidaltzea, erregistro-idazpenak egin ditzaten, indarrean dagoen hipoteka-legeriaren arabera.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 18:15etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

---

Erika Sagarzazu Camino